

14. EGUNEKO



KONTUAK



KONTATZEN

PROGRAMAZIOA: EGUNEKO KONTUAK KONTATZEN

HELBURUAK	JARDUERAK	EDUKIAK	TREBETASUNAK				
			ENTZUM	IRAKUR	ELKAR	MINTZ	IDAZM
<p>6.- Gertaera labur baten kontaketa uler dezake, ezagunak diren hitzak eta oinarrizko esamoldeak erabiltzen badira eta keinuz laguntzen bada.</p> <p><i>Egunean gertatutako pasadizo laburra ulertu eta bizpahiru esalditan kontatu.</i></p>	<p>Aurkezpena: 1. jarduera</p> <p>Trebatzea: 2., 3., 4 eta 5. jarduerak</p> <p>Aplikatzeara: 6. eta 7. jarduerak</p>	<p><i>Denborazko lokailuak: Goizean, eguerdian, arratsaldean, gero...</i></p> <p><i>Ekintzazko aditzak: jaiki, gosaldtu, bazkaldtu, joan, ibili...</i></p> <p><i>Orainaldia</i></p>					

PROGRAMAZIOA:

GAURKO KONTUAK KONTATZEN

1. JARDUERA

Testua irakurri (Irakasleak) eta galderei erantzun:

Aitorren eguna

Gaur goizean, 7:30etan jaiki naiz, dutxatu ondoren, jantzi naiz eta gosaldut.

Etxetik atera naiz eta bizikletaz etorri naiz eskolara.

Eskolan, lan asko egin dut euskara ikasten.

Atsedenaaldian, lagun berri bat ezagutu dut, oso jatorra da.

Eguerdian, jangelan bazkaldu dut. Oilaskoa patatekin jan dut.

Arratsaldean, soinketa izan dugu.

Etxera itzuli naizenean, bokadilo handia jan dut.

Galderak:

- Zer ordutan jaiki da Aitor?

- Nola joan da eskolara?

- Zertan egin du lan asko?

- Zer egin du atsedenaaldian?

- Zer bazkaldu du jangelan?

- Zer egin du etxera itzuli denean?

2. JARDUERA

Orain kontatu ezazu zure eguna orain arte (batak besteei kontatu)

Zure eguna

Gaur goizean,

Eskolan,

Atsedenaaldian,

3. JARDUERA

Idatzi hemen ahoz kontatu duzuna:

Gaur goizean,

Eskolan,

Atsedenaaldian,

PROGRAMAZIOA:

GAURKO KONTUAK KONTATZEN

4. JARDUERA

Erantzun galdera hauei:

Zer ordutan jaiki zara goizean?



Nola joan zara eskolara?



Zer egin duzu arratsaldean?



5. JARDUERA

Egin galderak bata besteei:

Zer ordutan jaiki zara?

Zer gosaldu duzu?

Zer bazkaldu duzu?

Zer egin duzu arratsaldean?

Zer afaldu duzu?

Noiz oheratu zara?

PROGRAMAZIOA:

GAURKO KONTUAK KONTATZEN



6. JARDUERA

Konta ezazu haur hauei gaur gertatu zaiena:

Hurrek negar egin dute itsasontzian.







PROGRAMAZIOA:

GAURKO KONTUAK KONTATZEN







PROGRAMAZIOA:

GAURKO KONTUAK KONTATZEN

GAUR GOIZEAN

Gaur goizean
Etxetik irteterakoan
Lanera nindoala
Atzera begiratu dut
-Lehengo ohitura? (*Lehen bezala?*)
Eta ez zaitut ikusi leihoan

Baina, hala ere,
Burua jaso dut
Zuri agur eginez

Zuk ere
Lehen askotan bezala
Zure eskutxo
Zure ezpainetara
Eramanaz
Apa gozo bat igorri didazu.

Eta bihotz begiekein
Nahiz eta aldegina zaren (*Naiz eta joan
zaren*)
Leihoan ikusi
Zaitut.

Eta lanera
Kontent (*Pozik*) joan naiz.

Bordari 1969

7. JARDUERA

*Olerkia irakurri eta zatiak ikasi, gero
denon artean olerkia esa:*